

# #10

# ESPAINIAKO ETA HEGO KOREAKO GERRAOSTEKO POESIA EXISTENTZIALAREN ARTEKO ERKAKETA

**Elia Rodríguez López**

*Kangwon National University*

ayle103@gmail.com

**Aipatzeko gomendioa** || RODRÍGUEZ LÓPEZ, Elia (2014): "Espainiako eta Hego Koreako gerraosteko poesia existentzialaren arteko erkaketa" [artikulua linean], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 10, 200-219, [Konsulta data: dd/mm/aa], <[http://www.452f.com/pdf/numero10/10\\_452f-mis-elia-rodriguez-lopez-eu.pdf](http://www.452f.com/pdf/numero10/10_452f-mis-elia-rodriguez-lopez-eu.pdf)>

**Ilustrazioa** || Paula Cuadros

**Itzulpena** || Nagore Pérez

**Artikulua** || Jasota: 31/07/2013 | Komite zientifikoak onartuta: 29/10/2013 | Argitaratuta: 01/2014

**Lizentzia** || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



**Laburpena** || Artikulu honen abiapuntua da gerra bat, bereziki gerra zibil bat, beratu pairatzen duen gizartearen kontzientzian sakon sartzen den gertaera dela; nolabait itxuratzen du, baita bilakabidean eragin ere. Uste horretatik abiatuta, erkaketa planteatzen da Hego Korea eta Espainiako gerraosteko poesiaren artean, nahiz eta hain hizkuntza eta kultura ezberdinak dituzten; ustez urrun badaude ere, biek jasan dute, zoritxarrez, gerra zibil krudela XX. mendean. Orobat, bietan hiru urte iraun zuen, eta zein bere modura, biak daude Bigarren Mundu Gerraren testuinguru globalaren esparruan.

**Gako-hitzak** || poesia korearra | gerraosteko poesia espainiarra | existentzialismoa | gerraosteko literatura.

**Abstract** || This article starts from the belief that a war, even more in the case of a civil war, is an event that leaves a profound mark on the consciousness of the society which endures it, configuring and having an effect on its development. From this starting point, the article establishes a comparison between post-war poetry in Korea and Spain. These two countries, regardless of their very distant languages and culture, sadly share the fact of having suffered, first-hand, a cruel civil war during the twentieth century. Both wars lasted three years and were, in their own way, framed by the global context of the Second World War.

**Keywords** || Korean Poetry | Spanish Post-war Poetry | Existentialism | Post-war Literature.

## 0. Existenzialismoa gerraoste espainiar eta korearraren egoera poetikoan

Korearen kasuan, ez dago argi zein aldi hartzen duen gerraosteko literaturak; luzeenean ere, Bigarren Mundu Gerran hasi eta 60ko hamarkadako erdialdean amaitzen da, baina zorrotz hartuta, 50eko hamarkadara mugatzen da. Hortaz, izen horren pean gerraosteko poesia eta gerrakoa bera ere biltzen dira (Song, 1996: 9). Nolanahi ere, esan daiteke Koreako gerran zehar idatzitako poesiak berezko ezaugarriak dituela, gerraosteko poesiatik bereizten dutenak, Espainiako kasuan gertatzen den bezalaxe. Lehenik eta behin, idazten zuten guztiak ez ziren poetak, soldadu askok ere idazten baitzuten, zenbait helbururekin. Hori dela eta, monotoniarako joera handia du, xede zehatza zuen poesia delako, izan borrokarako espiritua akuilatzea, komunismoaren aurkako ideologiaren propaganda egitea, edo aitzitik, gerraren alderdi jasangaitza salatzea eta izugarrikerien lekukotasuna ematea (Jang, 1997: 3).

Hori guztia dela eta, askoz interesgarriagoa da gerra amaitu zenetik aurrerako poesian baino ez jartzea arreta. Garai horretako idazleen belaunaldia gerrako idazleen belaunaldia da, euren obrak, ideologia edozein izanik ere, ezin direlako osorik ulertu gerraren esperientzia traumatikoa alde batera utzita, berezko ezaugarria da eta (Song, 1996: 9). Garaiaren alderdi jakin horren izena «existentzialismoa» edo «larritasun existentziala» izan daiteke, gerraren esperientziak eragindako larritasunak, hainbeste heriotza ikusteak dakarren etsipenak, eta bizitako gerra-izugarrikeria ugarien balioa zalantzan jartzeak ekarritako eszeptizismoak modu naturalean dakartelako existentziaren zentzuaz galdetzea norberaren buruari, bai eta norberaren heriotzaren aurrean larritzea ere. Horrek, mendebaldeko filosofia eta literatura mailako pentsaera existentzialaren eraginarekin batera<sup>1</sup>, korronte hori osatu zuen gerraosteko literatura korearraren barruan. Hala ere, egia da «existentzial» gisa jotzen den poesiak ez ohi duela berezko formalizazioa izan; aitzitik, beste poesia mota baten bidez zehazten da, izan korronte abangoardistaren bitartez, izan errealistagoa den «errealitatean parte hartzea» korrontearen bitartez, nolabait «forma» uzten baitio, eta eduki existentzialaz bete<sup>2</sup>. Esan liteke garai horretako poeten oinarrizko ezaugarria krisi existentzialaren kontzientzia dela. Horrenbestez, literatur korrontea baino gehiago, Koreako existentzialismoa garai horretako poema ugaritan sortzen den pentsaera korrontea da, eta hartzen duen forma ezberdina da egilearen arabera. Jakina, poeta guztiak ez zituzten ideia atzerritar horiek guztiak onartu, ez eta horiekin bat etorri ere, baina anai-arreben arteko gerra horrek eragindako zorigaitza eta hondamendia kolpe latza izan zen korear gehientzat, idazleak eta poetak barne, noski. Hori dela eta, korronte tradizionalistako zenbait poematan ere «larritasun existentzial» horren oihartzuna topa

### OHARRAK

1 | Existenzialismoa korronte filosofiko bat da; XIX. mendean sortu zen, eta XX. mendean bigarren erdialdera arte luzatu. Baina «existentzialismo» terminoa zabaltzearen ondorioz, bereziki Bigarren Mundu Gerraren ostean, korronte filosofiko jakin batekin baino, zenbait pentsaera-korronte heterogeneorekin identifikatu zen, Europan nagusiki 40 eta 50eko hamarkadetan sortu zirenekin, hain zuzen. Beraz, termino oso zabala da, eta ez da filosofiara mugatzen; aldiz, literatura, zinea, politika, eta abar biltzen ditu, eta baliteke bizitzako jarrera izatea hein handiagoan batean, ez horrenbeste tesi intelektual argi eta mugatuak dituen korronte filosofikoa.

2 | Zenbaitetan, egile berberak bil ditzake Koreako gerraosteko poesiaren alderdi asko, baina ikuspuntu formaletik abiatuta, egile gehienak bat datoz eta bi korronte handitan bereizten dute garai horretako poesia: tradizionala eta abangoardista; dena den, ohikoa da hirugarren joera bat gehitzea, «errealitatean parte hartzeko» poesia, alegia. Lehena da, hain zuzen, poesia tradizionalaren eritmoari eutsi edo naturaren inguruko gaiak jorratu nahi dituzten idazleek zerabiltena; bigarrena, hasiera batean, tradizionalistei erantzuteko sortu zen, kritikatzeko baitzuten, funtsean, tradizionalistek errealitateatik ihes egin nahi zutelara eta euren barnean soilik babesten saiatzen zirela, inguruko egoera latza alde batera utzita. Gainera, euren irudiko, ezin zitzaion luzaroago ez ikusiarena egin mendebaldeko eraginari, eta bertako poetika onartzea erabaki zuten. Azkenik, hirugarren motaren ezaugarri nagusiak dira beste biak baino geroago sortu zela, 50eko hamarkadaren erdialdean edo amaiera aldera; bestetik, interes berritua agertu zuen errealitatean parte hartzeari

dezakegu (Han, 1991: 80), eta esan daiteke korrante existentzialak ordezkaten duela batik bat 50eko hamarkadako poesia, osotasunean hartuta (Kim, 1999: 141), nahiz eta zehazteko forma abangoardista erabili ohi duen.

Azpimarratzekoa da existentzialismoa ez zutela inoiz egiatan sakon aurkeztu Korean; aitzitik, kazetaritzaren alorrean mugitu zen beti, eta korearrek arlo horretan maizen jorratutako mendebaldeko idazleak Sartre, Heidegger eta Camus izan ziren (Kim, 1999: 9). Sartre eragina genero horretan eta prosan nabaritu zen bereziki, eta Heideggerrena, aldiz, poesian batik bat; ziurrenik, interesa agertu zuelako hizkuntzaren eta sormenaren inguruan. Nolanahi ere, nahiz eta existentzialismoa 40ko hamarkadan sartu zen Korean, idazleek ez zuten gerraostera arte erakutsi mendebaldeko pentsaera horren inguruko benetako interesa, eta esan bezala, gerrak funtsezko eragina izan zuen horretan. Harrera bereziki ona jaso zuten Sartrek eta bere humanismoak; izan ere, Heideggerren aburuz, gizakiek ezerezera jotzen dute xede jakinik gabe, baina Sartrek gizartean parte hartzea proposatzen du, eta ekitearen alde egiten du. Haatik, komunismoa defendatzeak lausotu egin zuen bere ospea, eta horren ondorioz, korearren artean pizten zuen interesa Camusenganantz besteratu zen gutxika, bereziki Nobel saria jaso zuenetik aurrera.

Egile existentzialen arteko aldeak gorabehera, gehienek sarri erabiltzen zituzten hainbat oinarritzko kontzeptu aurki daitezke, eta aldi berean, garai horretako poeta korearrek gehien zerabiltzatenak izan ohi dira; izan ere, Mun Hye Wonek dioenez, galdutako gizarte balioak berreskuratzeko nahiz gerraostean sortutako arazoaren irtenbideak topatzeko tresna bilatzen dute mendebaldeko pentsaera existentzialean (Mun, 1996: 4). Hartara, absurdoaren ideia, etsipena eta larritasuna, Bestearen begirada eta gizakien esentzia kontzeptuak gako ideia dira ulertzeko, batetik, poeta korearrek pentsaera existentzialarekiko sentitzen duten erakarpena, eta bestetik, pentsaera horren erabilera gerraostean idatzitako poemetan. Baina kontzeptu horien erabilera sakonago aztertuta, ikus daiteke kasu askotan ez direla erabiltzen benetako existentzialismoari legokiokeen moduan, baizik eta gerra tragikoa ikusitakoan poetari darizkion larritasuna eta etsipena adierazteko bitarteko soil gisa. Existentzialismoari dagokionez, beraz, sentimentalismoak eta indibidualismoak sortzen dute interesa Korean, aski ongi egokitzen baita poeta korearrek bizi zuten egoera dramatikorara. Horrexek ematen dio izaera, horrexegatik pentsaera existentzialista gerra testuinguruan kokatzen da ia beti, eta horrexegatik ezin da uste Koreako poesia existentziala mendebaldekoaren kopia hutsa dela, poesia ongi egina baino, berezko izaera eta ezaugarriak dituena.

Espanian, Korean bezala, gerraostea gerra zibilaren esperientziatik bereizi ezin den literatur aroa da. Gerrako izugarrikeriek sakon

---

## OHARRAK

eta joera handia zuen gerrako eta gerraosteko inguruabar tragikoak modu positiboan gainditzeko era bilatzeko.

---

## OHARRAK

3 | Hau ez da toki egokia Espainiako gerraosteko korrante poetikoak zehatz-mehatz jorrazteko; nolana den, talde hauetan sailka ditzakegu labur-labur: tradizionalistak (*Garcilaso* aldizkariakoak), abangoardistak (nagusiki, *Postismo* aldizkariaren inguruan zebiltzan «postistak», eta *España*-ko «tremendista» zenbait ere bai), eta existentzialak. Era berean, azken horiek bi taldetan zeuden bereizita: «errotuak» (batez ere 36ko belaunaldia, *Escorial* aldizkariakoak) eta «deserrotuak» (Dámaso Alonso, Blas de Otero eta tremendista batzuk, esaterako, Crémer eta Eugenio de Nora). Bestalde, hurrengo hamarkadan poesia errealista nagusitu zen, gizarte mailakoa eta errealitatean zein gizartean modu aktiboagoan inplikatzeko xede zuena.

eragin zieten garai hartan idazten zuten poetei (Rosales, 2010: 28), eta gerraosteko lehen urteetan gatazka ez jorratzeak harridura sor dezakeen arren hasierabatean (Castellet, 1960: 59), gerrakeragindako zauria presente zegoen, eta existentzial gisako babesgabetasun eta larritasun sentimenduaren bidez islatu zen azkenean. Dena den, Korean ez bezala, ustea da gerraostea 1939an hasi zela, gerra amaitu eta berehala, eta amaitutzat ematen da diktadura bukatutakoan, 1975ean. Hortaz, Koreako gerraostearekin alderatuta, funtsezko bi alde daude: lehena da gerratea ez dela gerraoste kontzeptuan sartu (hori alde batera utzita, poesiari dagokionez, antzekotasun argiak ditu Koreako aldi berberarekin, orduan idazten zen poesiaren izaera ideologikoa baitzen eta borrokatzera kilikatzen baitzuen); eta bigarrena luzera da, Korearen kasuan gerraosteak hamar urte eskas baino ez baitzuen iraun, gehienez ere bi hamarkada, eta Espainiaren kasuan gerraosteak hiru hamarkada baino gehiago hartu zituen, harik eta diktadorea hil zen arte.

Horrenbestez, nahiz eta Korearen kasuan esan den poesia osoa nolabait lotuta dagoela gerrarekin izandako esperientzia zuzen edo zeharkakoarekin, ezin da gauza berbera esan Espainiakoari buruz; izan ere, zentzuzkoa da pentsatzea gerra amaitu eta berehala idatzitako poesia eta hogeitaz urteren buruan idatzitakoa ezin direla berdinak izan, gerraren esperientzia bera ere ez delako heldutan borrokatu zirenean, baizik eta hazi bitartean ondorioak jasan zituzten haurren, gatazkan parte hartu izan gabe.

Horregatik guztiagatik, eta aintzat hartuta Koreako poesiarekin erkatuta Espainiako gerraosteko poesiak luzaroago jo zuela, artikulua honetan, funtsean, Koreako aldi berberarekin aldera daitekeen aldi jarriko dugu arreta, alegia, *lehen gerraostea* dei dezakegun horretan, 40ko hamarkada osoan eta 50eko hamarkadaren hasieran. Denbora tarte horretan topa dezakegu gerraren esperientziaren eragin zuzenena, bai eta poetek horren aurrean ematen duten erantzuna ere: errealitateetik urrun dagoen poesian babes hartzea, tradizionalistarekin gertatzen den bezala; edota gerrak eragindako etsipenaren isla eta horrek dakarren galdera existentziala, geroago humanismora eramanez eta<sup>3</sup>.

Poesia existentzialaren harira, arrazoi berberengatik sortu zen Espainiako gerraostean eta Koreako poesian: gerrateko heriotzen eta suntsipenen ondorioz, poetak fedegabetasun, bakardade eta larritasunera jotzen du, eta sentimendu horiek adierazteko orduan, hobeto bideratzen dira pentsaera existentzialaren eraginaren bidez. Dena den, Korean ez bezala, Espainiako poesia existentzialaren iturri zuzena tradizio hispaniarra bera omen da, bereziki Urrezko Mendeko poeta metafisiko eta espiritualak, Antonio Machadoren poesia tenporala, eta are gehiago, Miguel de Unamuno pentsalari eta poeta aurre-existentziala (García de la Concha, 1987: 489).

Koreako poesiaren iturria, aldiz, Europako eragina izan zen, baina horrek ez du esanahi garrantzia ez duenik. Ildo horretatik, bereziki azpimarratzekoa da Heideggerrek garai hartako poeta existenzial guztiengan izan zuen eragina, eta horietako batzuegan Kierkegaard, Rilke eta Europako beste pentsalari eta poeta batzuen irakurketa igartzen da.

Zerrenda horretan, argi gailentzen da Sartrearen absentsia, nahiz eta Koreako existenzialismoan eragin handienetako bat jotzen den; halere, poesiagintzan beti izan zen garrantzitsuagoa Heidegger. Espainiaren kasuan, ezin da bere eragina zeharo baztertu, zeren, adibidez, garai hartako poesiari aplikatzen zaion «existenzialismo» terminoa Sartrek erabili eta ezagutaraztetik sortua da, hain zuzen. Hala eta guztiz ere, esan daiteke kasu horretan bere pentsaera inportanteagoa izan zela kritikak delako korrante politikoa zehazteko, eta ez berau eratzeko, batik bat pentsalari ospetsuak 1943 data berantiarrean kaleratu zuelako *El ser y la nada*, aurrerago existenzialismotzat ezagutu zena sortu zuen obra.

Hartara, gerra zibilean jasandako izugarrikerien ostean, Unamunoren funtsezko eraginak, berau kokatzen zen Europako ildoak, eta Urrezko Mendeko tradizio mistikoaren eragin nabarmenak, bereziki San Joan Gurutzekoarenak, bat egiten dute bertako izaera markatua duen poesia existenziala osatzeko, eta adierazle nagusia Dámaso Alonsoren *Hijos de la ira* da, 1944an plazaratua. Kasu horretan, argitaratze data oso garrantzitsua da, azaltzen baitu zergatik Sartrek ez duen bezainbesteko eragina garai hartako Espainiako poesian, eta aldi berean, arrazoi ematen dio Dámaso Alonsori, berak bere poesia existenziala dela ukatzen du eta<sup>4</sup>. Haatik, poema nabarmenetako batzuk aztertzean ikus daitekeen legez, Dámaso Alonsoren liburu horretako gaiak existenzialak dira argi eta garbi, baina ez dira Sartrekin lotzen, San Joan Gurutzekoarekin, Unamunorekin eta Heideggerrekin baino.

Gertakari hori, gainera, aipagarria da *Hijos de la ira* 1944an argitaratzeak eragin handia izan zuelako Espainiako poesian, ordura arte poesia klasizista tradizionala eta erlijioso baina ez zelako egiten. Panorama horretan, baina, poesia erdiragarria heldu zen, bertso luze eta librekoa, eguneroko hizkera eta hizkera arrunta ere bazerabilena larritasun hori guztia aske jariatzeko, poeta ondoezten duen hira hori guztia. Hartara, korrante poetiko berri bat sortu zen, poesia «deserrotua», Dámasok berak zioen bezalaxe. «Tremendismoko» kide batzuek ongi eta beste batzuek okerrago kopiatu zuten, eta Dámasoz gain, adierazle nagusia Blas de Oteroren *Ángel fieramente humano* eta *Redoble de conciencia* lanetako poesia da. Nolanahi ere, aipatzekoa da korrante tremendistako zati handi batek estilo informal hori gehiegi erabiltzeari ekin ziola, eta forma kopiatzeak eta edukia ez kopiatzeak mugimendua ahultzea eta postulatu existenzialetatik

---

## OHARRAK

4 | Hala, 1952an argitaratutako *Poetas españoles contemporáneos* liburuan, Sartrearen pentsaera Espainian argi sartu zenean, Dámaso Alonsok oinaldeko ohar batean ukatzen du bere poesiak Sartrearen poesiarekin zerikusia duenik, eta are, adierazten du ez dela gai izan egile horren ezer irakurtzen amaitzeko. Ondorioz, baztertu egiten du bere obra *Hijos de la ira* existenzialtatzat jotzea (Alonso, 1952: 333).

urruntzea ekarri zuen (Asís, 1977: 15).

Baina hori ez zen joera bakarra Espainiako existentzialismoaren baitan; aitzitik, Dámaso Alonsoren<sup>5</sup> hitzetan poesia existentzial «errotu» gisa ezagun dena ere topa dezakegu, Unamunoren, Antonio Machadoren eta, garai klasikoaren eragin berberari jarraikiz, baita Heideggerrenari ere, eta batez ere Rilkeren poesia erlijioso-existentzialarenari. «Poesia errotua» poesia existentzial erlijiosoaren mota bat zen, baina, larritasun existentziala «deserrotuek» bezala pairatzen bazuten ere, fedea ainguratzat jo zuten, helduleku irmotzat (Alonso, 1952: 345), izan fedea Jainkoarengan, izan heriotzaren trszendentzian, familiaren bakean edo aberriarekiko maitasunean. Hori dela eta, poesiak bareago izateko joera du, baita erlijiosoa ere, sakon, baina benetan sentitutako erlijio sentimendu horrekin. Adierazle nagusiak 36ko belaunaldia osatzen zuten poeta lagunak izan ziren, Luis Rosales buru.

Aldiz, aipatu moduan, «poesia deserrotuak» ez du heldulekurik aurkitzen (Alonso, 1952: 349), eta hortaz, hasiera batean larritasunera eta etsipenera lerratu zen. Korearen kasuarekin erkatuta, baina, «poesia errotuaren» eta «poesia deserrotuaren» arteko kontraste hori alde handia da, han ez baitira bereizten; horrez gain, Koreako poesia existentziala forma modernistaren bidez adierazten da, eta Espainiakoak berezko forma du. Ostera, esan beharra dago Espainiako poesia existentzialak ere berezitasunak dituela, Koreakoak bezala, baina, atal honetan argitzen saiatu garen arrazoiengatik, Espainiakoak ere oso ezaugarri bereziak ditu; horien jatorria da, nagusiki, bertako berezko literatur tradizioa Europako korronteen eraginean sartua zegoela, eta, tamalez, gerra –literatura existentzialaren benetako jatorria Europan ere– Bigarren Mundu Gerra baino lehen jazo zela, eta ez alderantziz, Korean gertatu bezala.

## 1. Espainiako eta Hego Koreako gerraosteko poesia existentzialaren arteko erkaketa

### 1.1. Heriotza

Esan daiteke galdera existentziala, «existentzia» garelako kontzientzia, heriotzaz beraz autokontziente izatetik sortzen dela. Ondorioz, logikoa da literatura existentziala gerraostean sortu izana, gerrak heriotzarekin begiz begi jartzen duelako norbanakoa. Gerrak iraun bitartean, poetek hamarka heriotza ikusi zituzten ziur asko, baina bazekiten heriotza askoz gehiagoz inguratuta zeudela, heriotza gertu zegoela, inguruan, eta inor ez zegoela guztiz salbu. Hartara, garai horretako poeta ugarik gerrako egoera tragikoa islatu zuten

---

## OHARRAK

5 | Horren inguruan, nahiz eta kritikari gehienek Dámaso Alonsok hain goiz emaniko banaketa onartu egin duten, nabarmentzekoa da gaur egungo azterlan batzuk ez datozela bat. Besteak beste, Noemí Montetes-Mairalenen lan batean adierazten da ez dagoela distantzia handia bi poesia mota horien artean, «trszendentziarako borondate» erkideak lotzen dituelako, hain zuzen, «immanentziarako borondate»-ari aurre egiten dionak eta gerraurreko belaunaldian ikus zitekeenak (Rosales, 2010: 34).

euren poemetan, eta heriotzak gainezka egiten duen triskantza eta kaos panorama bat azaltzen zuten.

DDT라는 글자가 의미하는 것은 소독약 또는 이를 잡는 약이라는 것이다. 초연이라는 글자가 의미하는 것은 수많은 총포가 뿜어낸 연기라는 것이다. 지평이라는 글자가 의미하는 것은 땅의 끝이라는 것이다.

El significado de la palabra «DDT» es el de «desinfectante» además de ser una medicina para despiojar. El significado de la palabra «humareda» es el de «humo que emana de incontables armas». El significado de «horizonte» es el de «fin de la tierra»<sup>6</sup>. (Jeon, «JET.DDT», 2008: 231)

Con la sangre hasta la cintura, algunas veces  
con la sangre hasta el borde de la boca,  
voy  
avanzando  
(Otero, «Crecida», 2003: 80-82)

Bi poema horietan gerrak kontsumitutako paisaia suma daiteke. Batean zein bestean ez da «heriotza» hitza zuzenean ageri, eta hala ere, heriotzak eszenan gainezka egiten duelako sentrazioa hor dago, argiro. Lehenean, lurreko gainazala DDTak eta bolbora-keak hartua dago, eta elementuok bizitza eta segurtasuna suntsitzeko gaitasunaren sinbolo dira, gaitasun hori gerraren berezko ezaugarria izanik. Ni poetikoak berak adierazten duenez, bolbora-kea kanoietatik eta armetatik dator, eta horrek argi ekartzen ditu gogora gerra bera eta gerrak eragiten dituen heriotzak. DDTa desinfektatzaile bat da, eta baliteke horrekin nabarmendu nahi izatea gerrak suntsitzeko duen gaitasuna gauza txikienetara ere heltzen dela, gizakiez harago, bizirik dagoen oro hartuta. Hortaz, bi elementu horiek lurrazala eta mendiak erabat estaltzeak esan nahi du gerrak eragindako heriotza guztiek estaltzen dituela.

Bigarren poeman ideia berbera ageri da, lurra gerrako biktimei darien odolak zeharo hartua azaltzen delako. Baina aurreko poeman agertzen diren elementuak suntsipenaren eta heriotzaren sinbolo badira ere, bigarrenean heriotza gertatu da harrezkero, eta hainbesterainokoa izaki, gorpu hil horien odolak dena hartzen du, baita ni poetikoa ere, suntsipen handiaren erdian harrapatua eta ahalmenik gabe.

Poema bien arteko alde nagusia da gerrako egoera tragikoa eta gerrak dakarren heriotza erakusteko bakoitzak darabilen estrategia poetikoa. Hala, Jeon Bong Geonen estiloa hotza eta ironikoa da, baina oso eraginkorra ere bai, larritasun sentrazioa ikuspegi objektiboa bereganatuta lortzen baita, eta horrek, aldeari erreparatuta, are gehiago nabarmentzen du gerraren tragedia (Park, 2004: 262). Haatik, Blas de Oterok nahiago du beste nolabait sinbolizatzea ni

---

## OHARRAK

6 | Egileak egin ditu itzulpen guztiak; ez dute xede literarioa, artikulua eta poemak ulertzen laguntzea da helburua, besterik ez.



poetikoak heriotzaren aurrean agertzen duen larritasuna, hain zuzen, ni poetikoak sentitzen duen itolarri sentsazioaren bidez, itotzeko mehatxua egiten dion odol itsasoan aurrera egiten duen bitartean.

Horrenbestez, heriotzaren aurrean sentitzen den beldur naturala dela-eta gerran zehar jazotako hainbeste heriotza ikusi izanak existentziaren zentzua norberaren buruari planteatzea baldin badakar, heriotzaren benetako esanahiaz galdetzea ere naturala da. Horrelaxe ageri da garai hartako poesian soil-soilik existentziala den gai bat: heriotza, bizitzaren funtsezko zati gisa.

Lo que yo siento es  
un horror inicial de nebulosa  
(Alonso, «A pizca». 2001: 124)

Dámaso Alonsoren poema horretan, ni poetikoa ozen ari da bakarrizketan, Pizca izeneko txakur maskotarekin «hizketan» ari delako plantak egiten; zergatik egiten duen uhuri galdetzen dio, eta berekin solidarizatzen da (Alonso, 2001: 174). Poemako lehen paragrafoan ni poetikoak izana desagertzeari dion izu handia sumatzen da, horren ondoren «hutsa» besterik ez duelako espero. Hala ere, heriotzari dion beldurrak bigarren paragrafoan bere horretan dirauen arren, heriotza benetan bizitzaren zati funtsezkoena delako ideia ere ageri da. Ni poetikoak ikusten dituen «itzal» horiek heriotzaren itzalak dira, haien zain, baina aldi berean, honako hau ere badira «la tristeza original,/ son la amargura/ primera,/ son el terror oscuro,/ ese espanto en la entraña/ de todo lo que existe» (Alonso, 2001: 124). Ni poetikoaren ustez izana desagertzeko ideiak tristura eta izua ekarri ahal izatea gorabehera, onartu egiten du, finean, amaiera hori bizitzaren jatorria bera dela, funtsezkoena, izaki bizidun guztion zoria herioa delako, halabeharrez.

병풍은 무엇에서부터라도 나를 끊어준다  
등지고 있는 얼굴이여  
주검에 취(醉)한 사람처럼 멋없이 서서  
병풍은 무엇을 향(向)하여서도 무관심(無關心)하다  
주검의 전면(全面) 같은 너의 얼굴 위에  
용(龍)이 있고 낙일(落日)이 있다.

El biombo me separa de todo.  
Es la cara que se opone al cadáver,  
torpemente de pie como un hombre borracho  
el biombo, se oriente hacia donde se oriente, no muestra interés en nada.  
Sobre tu cara parecida a la de un muerto  
hay un dragón y el ocaso.  
(Kim, «Byeongpung», 2003: 122)

Bestalde, beste poema horretan bionbo bat agertzen da, bizidunen mundua eta hildakoen mundua bereizteko eginkizuna duena. Hala,

---

eragotzi egiten du bizidunen munduan den ni poetikoak etsipenez «jauzi» egitea hildakoen mundura (Kim, 1999: 112), eta horrexegatik dago «el biombo en un lugar más alto que la altura de la falsedad» (Kim, 2003: 122). Aldi berean, ni poetikoak bionboa erabiltzen du heriotzaren izaeraz hausnartu eta heriotzaz jabetzeko, batik bat azken bertsoetan: «Yo contemplo el biombo/ y la luna a mis espaldas/ iluminaba el sello de los siete caballeros del mar antiguo, dueños del biombo» (Kim, 2003: 122). Bertan, ilargiak heriotza irudikatzen du. Hortaz, ilargiaren argiak hildakoen mundua argizatzen du, baina bizidunena ere bai, gauza berbera direlako biak, egiatan (Kim, 1999: 115). Egun bizirik direnek hil beharko dute noizbait, eta ilargiak horregatik argizatzen ditu guztiak; horren bidez, heriotza guztioi berdin-berdin heltzen zaigun zerbait dela sinbolizatzen du, eta, bionboa gorabehera, bizitza eta heriotza ez dira benetan bereizten. Izan ere, ilargia heriotzaren irudi gisa erabiltzeak adieraz dezake, halaber, heriotza existentziako beste aldi bat baino ez dela, ilargiak bere aldiak baititu, eta hortaz, existentziak ere bai. Horrenbestez, heriotza aldi horietako bat besterik ez litzateke izango. Kasu honetan, ilargiaren aldietako batek, ni poetikoa argizatzen duenak, heriotza irudikatuko luke, baina baliteke gainerako aldiek gizakion existentziaren beste etapa batzuk irudikatzea, berpiztu edo berraragitzeko aukerari ere atea zabalik uzten dion ziklo amaigabea, heriotza bera baino harago doazen aldi gisa. Horren eraginez, poema honetan, heriotza ez da bizitzak berezkoa duen alderdi funtsezkotzat jotzen, ezta bizitzaren jatorri eta amaieratzat ere, aurreko poeman ez bezala; aldiz, poema honetan, heriotza ilargiaren zikloko beste aldi bat baino ez da, hau da, gizakion existentziaren beste etapa bat.

## 1.2. Esentzia galtzea eta krisi existentzian erortzea

Heriotza bera eta heriotzaren zein giza existentziaren inguruko hausnarketa alde batera utzita, gerrak lotura estua du existentzialismoaren beste alderdi garrantzitsu batekin: absurdo existentziala. Horren oinarria karma edo zoria ukatzea da, eta hartara, ustea da ez diola axola zure egintzak onak edo okerrekoak izateak, ez baitago zigor edo saririk, eta ezbeharrak nahiz zorte kolpeak gertatzen dira, besterik gabe, kasuan kasuko pertsonak merezi edo ez. Gerra horren adibide ona da, edozein pertsona bizi edo hil daitekeelako aurretiko ekintzak onak edo okerrekoak izateak benetan axola gabe. Hasiera batean, gerrari soilik aplikatzen zioten absurdo sententzia hori, baina mundua ulertzeko modura ere hedatu zen, eta pentsaera horrek balioak galtzea eragin dezake azkenean, baita bizitza bera absurdoa delako edo zentzurik ez duelako sententzia ere. Horixe da gizakion esentzia galtzearen jatorria, hain zuzen.

¡Ay, yo no soy,  
yo no seré

hasta que sea  
como vosotros, muertos!  
Yo me muero, me muero a cada instante,  
perdido de mí mismo,  
ausente de mí mismo,  
lejano de mí mismo,  
cada vez más perdido, más lejano, más ausente.  
¡Qué horrible viaje, qué pesadilla sin retorno!  
(Alonso, «En el día de los difuntos», 2001: 85)

산허리에 반사하는 일광. Los rayos del sol se reflejan en la ladera de la montaña.  
BAR의 연사. El orador del BAR.  
비둘기의 똥냄새 중동부전선. En la parte centro-este del frente olor de mierda de paloma.  
나는 유효사거리권 내에 있다. Estoy en el área de alcance efectivo.  
나는 0157584다. Soy el 0157584.  
(Jeon, «0157584», 2008: 30)

Bi poema horietan berezko esentzia galtzeko ideia berbera ageri da. Lehenengoan, ni poetikoa denborazkotasunaz jabetzen da, bere existentziaren mugaz, baina herioari dion beldurrak bere buruaz alienatzen du eta ez dio uzten «de pie ante la muerte» egoten; ordea, etsipenean erortzen da, eta hildakoak baino ez direla izaki perfektu pentsatzera ere heltzen da, honezkero ez baitira hilko. Hori dela eta, ni poetikoa «perdido de mí mismo,/ ausente de mí mismo» sentitzen da, bere esentziatik erabat bereizita, eta ez da gai bete-beteko bizitza bizitzeko, heriotza bizitzaren funtsezko zatia dela onartuta.

Alderatuz gero, Jeon Bong Geonen poemak aurrekoak baino zerikusi handiagoa du gerraren esperientzia zuzenarekin, baina, ezbairik gabe, niaren esentzia galtzearen adibide argia da, baita beste gai batzuen ere, esaterako, gerraren absurdoarena. Poema horretan ni poetiko despertsonalizatua azaltzen da, bere burua zenbaki batekin soilik identifikatzen duen nia («Soy el 0157584»), gerrak izena bera ere kentzea lortu du eta. Egiatan, ni poetiko hori gerraren pean dagoen tresna bat da, kontsumo artikulatu bat, eta horrenbestez, bere bizitzak borrokarako indar gisa soilik du balioa. Existitzen dela dirudi, baina bere existentzia lanabes soil bihurtu dute, erabilgarria ez denean baztertzen dutena. Beste zenbaki bat da, izaki anonimoa bat, heriotza anonimorantz bideratzen dena, eta ez du zerikusia Heideggerrek aipatzen duen Daseinen «heriotza esentziala»-rekin. Hartara, esentziarik ez duen «ente» horren bidez, egileak gerraren gizagabetasuna salatzen du, gerrak kontsumorako objektu zenbakidun soil bilakatzen dituelako gizakiak.

Esentzia galtzearen kontzientziaren ondoren, bidea ematen zaie etsipen eta larritasun existentzialari, niak barnean sentitzen duen hutsaren ondorioz. Hartara, krisi existentzialaren kontzientzia areagotu egiten da, eta zenbaitetan burua horrenbeste lausotzen

duenez, Daseinek, ni existentzialak, ahalegin handia egin behar du nihilismoan ez erortzeko.

-새로운 신에게 여윈 목소리로 바람과 함께 우리는 내일을 약속치 않는다. 승객이 사라진 열차 안에서	A un Nuevo Dios. Con la voz de una chamán, junto al aire no hagamos ninguna promesa sobre el mañana. Dentro del tren de desaparecidos pasajeros
오 그대 미래의 창부여 너의 희망은 나의 오해와	¡Oh! Tú eres la ramera del futuro y tu esperanza no es más que mi malentendido
감흥感興만이다. (Park, «Mirae-ui changbu», 2006: 82)	y mi deleite.

Madrid es una ciudad de más de un millón de cadáveres (según las últimas estadísticas).

A veces en la noche yo me revuelvo y me incorporo en este nicho en el que hace 45 años que me pudro,

y paso largas horas oyendo gemir al huracán, o ladrar los perros, o fluir blancamente la luz de la luna.

[...]

Y paso largas horas preguntándole a Dios, preguntándole por qué se pudre lentamente mi alma

(Alonso, «Insomnio», 2001: 81)

Bi poemetan, ni poetikoak larritasun handia erakusten du bere existentziaren gainean, eta horrek eragotzi egiten dio etorkizunean esperantzarik izatea. Lehen poemako irudiak hain dira muturreko etsipenekoak, ia-ia nihilistak ere badirela (Choi, 1994: 79). Jainkoaren kategoria prostituten mailara apaldu da, ez delako gauza izan gerraren izugarrikerietan nahasita dagoen gizadiari laguntzeko (Yun, 2004: 61). Jainko kargugabetuak ez du ahalmenik gizadiari etorkizun hobea ziurtatzeko, bakez gainezka, eta beraz, «no hagamos ninguna promesa sobre el mañana». Hala, larritasunak eta etsipenak ordeztzen dute esperantza, desio eta helburu oro. Hori dela eta, bere buruari galdetu egiten dio Jainkoaren benetako helburua ni poetikoa hiltzea ote den.

Bitxia bada ere, irudi hori ia berdin-berdin ageri da Dámaso Alonsoren poeman. Bertan, Madril hiria pertsonak bizi ez diren hilerri batekin alderatzen da, usteltzen ari dira eta (Alonso, 2001: 167). Ni poetikoak berak bizirik den hildakotzat ikusten du bere burua, gutxika usteltzen ari den hildakotzat, heriorako bidean. Etsipen handia sortzen dio horrek, eta larritasunez beteriko hizkuntza baten bitartez transmititzen du. Xedea erdiesteko, hizkera arrunta ere baliatzen du, eta argiro etsigarri diren irudiak sortu. Larritasun existentzial handiko gau horretan, ni poetikoa ez du loak hartzen, eta Jainkoari bizitzaren zentzua zein den galdetzen dio, ondoren herioa baino ez baitugu

zain. Aurreko poeman bezala, badirudi azken bertsoak esan nahi duela Jainkoaren helburua herioa bera dela, besterik ez.

### 1.3. Krisi existentziala gainditzea

Hala ere, existentzialismoak, filosofia gisa, ez du larritasunean eta etsipenean erortzea aldarrikatzen; aitzitik, esentziarekin bat bizitzeko gaitasuna berreskuratzea du xede, eta horretarako, herioarekiko beldurra gainditzea du oinarritzat, mugak aintzat hartuta beti, baina mugok menderatzen utzi gabe.

Hartara, esentzia berreskuratu eta krisi existentziala gainditzen saiatzeko modu bat da norbanakoa krisi existentzian erortzean gertatzen den isolamenduari amaiera ematea eta Bestearekiko harremana berrezartzea. Eta ez dago alteritatearekin adiskidetzeko bitarteko hoberik giza maitasuna baino, gerrak eragindako zauriak sendatu eta nia salbatzeko bide gisa.

Me he visto vacilante,  
cual si otra vez pesaran sobre mí  
80 kilos de miseria orgánica,  
[...]  
...¡Voy a caer!  
Pero el Padre me ha dicho:  
«Vas a caerte,  
abre las alas.»  
[...]  
Eran aquellas alas  
lo que ya me bastaba ante el Señor,  
lo único grande y bello  
que yo había ayudado a crear en el mundo.

Y eran  
aquellas alas vuestros dos amores,  
vuestros amores, mujer, madre.  
(Alonso, «Las alas», 2001: 163-164)

Poema horretan, hasieran, ni poetiko etsi bat agertzen da, eta sentitzen du Jainkoari zerbait eman behar diola bere arima salbatzearen truke, baina ez daki zer, bere banakotasunak esentziarik ez duelako eta «80 kilos de miseria orgánica» besterik ez delako. Ni poetikoa bere etsipenaren beraren amildegira «erortzeko» («caer») zorian dagoenean, Jainkoak aukera bat duela gogorarazten dio: «abrir las alas». Eta hegook bere bizitzako bi maite handiak dira, ama eta emaztea, baina ni poetikoak, krisi existentzialak eragindako isolamendua dela eta, ahaztuta zituen erabat. Baina orain, Jainkoaren hitzoi esker, gogoan du izaki horiei dien maitasuna, eta hori da Jainkoari salbazioaren truke eskain diezaiokeen bakarra. Hala, bi maite horiek ni poetikoaren «hego» bihurtzen dira, etsipenean erortzetik salbatzen dute, bizitzak iraun bitartean eusten laguntzen diote, eta gerora, heriotza datorkionean, Jainkoarenera

---

goratzen lagunduko diote. Hortaz, bere bi hegoek ematen dioten segurtasunak izana desagertzeari dion beldurra konpentsatzen du, eta hil ostean, hegoak gai izango dira Jainkoarengana goratzeko. Kasu honetan, bada, Jainkoak, heriotzaren transzendentziaren eta izanaren jarraitutasunaren sinbolo izateaz gain, gizakiak biziki nahi duen bake espirituala ere irudikatzen du, hau da, poeta honen krisi existentzialaren antitesi argia (Alonso, 2001: 179).

그러니까 칠 년 전  
1950년 6월 25일 해 뜨기 전 어스름  
갈기갈기 찢겨서 불타오를 때그때  
함께 불타오른 입맞춤의  
증거가 아니고 무엇이겠는가  
미친 대포가 하늘 부수고  
미친 전차의 캐터필러보다도 완강하게 파고들어  
오 대포 소리보다도 사납게 힘차게 터지고 터진  
사랑의 증거가 아니고 무엇이겠는가.

Por eso 7 años antes  
el 25 de junio de 1950 antes de que saliera el sol  
cuando la penumbra se iba rasgando a pedazos y empezaba a arder,  
justo entonces, si eso no era la prueba  
de un beso en el que dos arden juntamente, qué podría ser.  
Eso que penetra obstinadamente más que un cañón loco que quebranta  
el cielo  
y que un tanque oruga loco  
¡Oh! Que explota y explota más violenta y ferozmente que el ruido de la  
artillería  
si eso no es una prueba de amor qué será.  
(Jeon, «Sarang-eul wihan doipul-i», 2008: 127)

Beste poema horretan, maitasuna indar boteretsua da, gerrakoa bezalako egoera izugarrietan ere ager daitekeena. Hala, gerra hasten den goizean bertan emandako «musuek» maitasuna sinbolizatzen dute, eta horren emaitza egun 6 urte dituen haur hori da (Yun, 2004: 158). Maitasuna, beraz, gerrak irudikatzen duen herioari aurre egiten dion bizi-indarra da, eta horrenbestez, Bestearekin adiskidetu eta elkarrenganako konfiantza berrezartzeko bide bakar bilakatzen da (Mun, 1996: 84). Maitasun horren emaitza den haurra bizitzaren eta esperantzaren ikur bihurtzen da, gerrako egoera dramatikoan bizirauteko gai izan delako, eta aurrean duen etorkizuna gizaki guztien esperantzaz beteriko etorkizuna da. Existitzea bera bizitzaren eta esperantzaren adierazle da, baita «geroa» etorriko delako agintza ere. Hala, aurreko poemak ez bezala, azkenak bi pertsonaren maitasun sexual eta intimoa du abiapuntu, baina bertatik Koreako lurralde osora hedatzen da maitasuna, eta harago, gizadi osoak bizitzari dion maitasunera. Beraz, Dámaso Alonsoren poeman ni poetikoak banako maitasunaren bidez deskubritzen du krisi existentziala gairitu duela, eta nahikoa du horrekin; aitzitik, Jeon Bong Geonek gizadi osoa salbatzeko bidetzat du maitasuna, eta bere poesiari fedea dario, bizitzan eta gizadian.

Gizadian duen fede-egintza, azkenean, Sartrek aldarrikatutako humanismoarekin lotzen da (1999), eta hartara, garatzen duen poesia humanista da, eta alienazio existentziala behin betiko gainditzea eta alteritatearekin lotzea du xede, gizakiak bereizi eta gerra bezalako gatazkak eragiten dituzten oztopoez gaindi, gai izan gaitezen elkar ulertzea unibertsala izateko.

내가 깊이 들이마신 흠냄새는 내 오장육부를 흠뻑 적실 것이다.  
내가 깊이 들이마신 흠냄새는 내 넋 또한 흠뻑 절일 것이다.  
오 마침내 나는  
흠이 될 것이다.

El olor a tierra que inhalo profundamente me impregnará las entrañas.  
El olor a tierra que inhalo profundamente adobará mi espíritu hasta el tuétano.  
¡Oh! Finalmente  
me convertiré en tierra.  
(Jeon, «Hulg-e uihan shi se pyeon 3», 2008: 109)

Aztertu dugun egile horren azken poeman maitasunaren eta bizitza sortzeko maitasunak duen indarraren bidez adierazten zen humanismoa, etorkizun itxaropentsuan sinetsarazteko gauza dena; halere, goiko poemako humanismoak zerikusia du gizakiaren esentzia natura-zikloaren parte delako ideiarekin. Hala, poemaren lehen zatian, ni poetikoa lurrarekin batasunean bizi den haurra da, eta natura-zikloaren parte da, lurra-lorea-zerua irudi zirkularrak (gorantz) eta euriak (beherantz) sinbolizatua (Park, 1997: 56). Bigarren zatian, gerrak zikloa hautsi du, eta horren ondorioz, ni poetikoak galdua du esentzia, eta krisi existentzian erortzen da (Park, 1997: 58). Hirugarren zatian, haatik, krisia gainditzeko borondatea eta gaitasuna ageri dira natura-zikloarekin duen konexioa berreskuratuz, eta horrek eragiten du ni poetikoak «¡Oh! Finalmente/ me convertiré en tierra» esatea. Ni poetikoa lurrarekin identifikatzea naturarekiko batasunaren sinbolo da, eta gizaki guztiak dira naturaren parte. Horrenbestez, kasu honetan, humanismoa adierazten da egiatan gizaki guztiok gauza beraren parte garelako ideia bidez, natura-zikloaren parte; ildo horretatik, humanismoa bera gainditzeko batasun unibertsalean, natura osatzen duen guztia barnean dagoela.

Cuando la noche llegue y la verdad sea una palabra igual a otra,  
cuando todos los muertos cogidos de la mano formen una cadena  
alrededor del mundo,  
quizás los hombres ciegos comenzarán a caminar como deambulan las  
raíces en la tierra  
sonámbula;  
caminarán llevando un mismo corazón de mano en mano,  
y cuando al fin se encuentren  
se tocarán los rostros y los cuerpos en lugar de llamarse por sus nombres,  
y sentirán una fe manual repartiendo entre todos su savia,  
y crecerán los muertos y los vivos,  
unos dentro de otros  
hasta formar un solo árbol que llenará completamente el mundo,

cuando llegue la noche.  
(Rosales, «Creciendo hacia la tierra», 2010: 384-385)

Aurreko poeman bezala, honetan ere ni poetikoa zabaldu eta gizadi osora hedatzen da naturarekin nolabaiteko batasunean; hartara, gizaki izaeratik harago doa, eta unibertsoarekin ezartzen du lotura (Rosales, 2010: 126). Kasu honetan, gaua ez da elementu negatibo bat, ilun eta beldurrezkoa, une magikoa baizik, bai baitirudi denbora gelditzen dela eta gizakiak amesten eta atsedean hartzea lortzen duela. Baina une horretan soilik gertatzen da; «cuando llegue la noche», gizaki guztiek, harmonian, «se tocarán los rostros» eta «caminarán llevando un mismo corazón de mano en mano». Hots, isolamendua gaindituko dute, eta hortik aurrera, osotasun harmoniatu eta batuaren parte izango dira. Jeon Bong Geonen poemak dioen legez, natura ere horren parte izango da, zuhaitz handi baten formarekin argi eta garbi sinbolizatzen baitu gizaki senidetuen irudia. Gizaki horiekitsuak dira, honezkero ez dutelako gizakien esentzia besterik ikusi behar, eta bihotzez antzeman daiteke hori. Dena dela, aurrekoan ez bezala, gizaki guztien batasuna ez da bizirik daudenena bakarrik, hildakoak ere barnean daude (Kim Su Yeongek ideia hori iradoki zuen «Byeongpung» poeman; gainera, beste paralelismo interesgarri asko ditu Rosalesekin). Izan ere, gau hori une magiko baten irudia da Luis Rosalesentzat, denbora gainditzea ere ahalbidetzen duelako eta zerbait zikliko bilakatu, non hildakoek eta bizirik daudenek elkar ukitu baitezakete eta elkarrekin pizkundearen zain egon baitaitezke (Rosales, 2010: 127). Beraz, poema horretan argi ikusten da Bestearekin bat egiteak, naturarekin batasunean, Bestearen esentzia ezagutzea ahalbide dezakeela, itsua izanda ere, eta hortaz, nork bere esentzia ere berreskura dezake, gizaki guztiak osotasun unibertsalaren parte direlako. Hala, denbora eta heriotza gainditzen dira, eta horrenbestez, niaren krisi existenziala gainditzen da.

## 2. Ondorioa

Gerra ahazten zaila den esperientzia bat da, are gehiago gerra zibila bada. Hala Espainia nola Korea basakerian murgildu ziren, eta Bigarren Mundu Gerraren testuingurua ez zen adoretzeko modukoa. Egoera hori inpaktu handia izan zen garai hartako idazleentzat, eta beraz, batzuk errealitate horretatik ihes egiten saiatu ziren euren poemetan mundu paraleloak eraikiz, iraganaren tradizioak eta memoriak babestuta (herrialde bietan joera tradizionaleko poesia sortu zen); beste batzuek, aldiz, halabeharrez adierazi zuten erraiei zerien larritasuna, eta lan honen aztergai den poesia existenziala izan zen emaitza.

Nolanahi ere, artikulua honetan azaltzen saiatu garenez, poesia



---

existentzial horrek ezaugarri eta gai oso antzekoak ditu bi herrialdeetan, alde kulturala gorabehera. Orobat, poeta espainiarra edo korearra den aintzat hartuta, jorratutako gaietan agertzen diren aldeak aztertu dira, izan ñabardurak izan intentsitatea, kontuan hartzeko modukoak direlako, eta interesgarria litzateke hemen bertan ere jasotzea, ondorio gisa.

Gai garrantzitsu horietako bat gerrako esperientzia da, batik bat krisi existentziala eragin dezakeen heinean. Aipatu dugu garai hartako egile korearren obran, adibidez, Jeon Bong Geonenean, gerra etengabe agertzen dela poemetan, eta gako faktorea da bere poesia ulertzeko. Haatik, Espainiaren kasuan, gerraren inguruko aipamenak urriagoak dira, eta modu estalian edo zeharka adierazten dira. Beharbada, arrazoa da Koreako imajinario koletiboan ez zela gerrako benetako garailerik egon; aldiz, bi aldeek huts egin zuten herrialdeko gainerako zatia bereganatzen saiatu zirenean, eta horrek behin betiko zatitzea ekarri zuen. Horiek horrela, gerra egitate tragiko eta mingarri bihurtu zen berehala, eta aho betean hitz egin zitekeen horri buruz, prozesuko egoera politikoak horren alde egin zuelako, nahiz eta Korean ere laster eratu zen gobernu autoritarioa. Baina Francoren Espainia erabat desberdina zen, argi bereiz baitzitezkeen alderdi garailea eta alderdi garaitua: diktadoreari garaipena eman zion gerra egitate heroikotzat baino ezin zen ikusi, aberriaren zerbitzura. Hori dela eta, euren sentimenduek jarrera ofizialekin bat egiten ez zuten idazle espainiarrek, gerraren suntsipeneko eta kaoseko alde negatiboa besterik ikusi ezin zutenek, ihesbideak topatu behar izan zituzten gerraz jarduteko eta zentsura saihesteko.

Testuinguru historiko horretan, baita ere, hein batean azalduko genuke zergatik poeta espainiarren krisi existentzialak jartzen duen horrenbesteko arreta banakako esperientzian eta norberaren existentziaren aurreko larritasun sentimenduan; Koreako poemen oinarria, berriz, gerra da ia beti. Arretagunearen alde hori lan honetan aztertutako poemetako askotan ikusi ahal izan da, bereziki Dámaso Alonso eta Jeon Bong Geonen obran. Alabaina, ez dirudi alde horren jatorria hemen gainetik aipatu den egoera historikoa denik soilik, baizik eta, ziurrenik, sustrai askoz sakonagoak ditu, herrialde bietako kultur eta literatur tradizioarekin lotuta: Espainiako poesiaren abiapuntua *nia* da funtsean, banakoa, baita bere sentimenduak ere; Koreako poesian, aitzitik, intentsitate txikiagoarekin agertzen dira *nia* edo banakoa, baina Bestearen eta komunitatearen inguruko interes handiagoa sumatzen da.

Azkenik, bi herrialdeen arteko kultur distantzia handiari egoztekoa da poema korearretan naturako elementuak gehiagotan aipatzen direla, eta ildo beretik, poema espainiarretan Jainkoari ezin kontatuzko aipamenak egiten zaizkio. Halere, bietan ikus daiteke ezaugarri hori poesia existentziala baino harago doala eta herrialde bakoitzeko

---

tradizio poetikoarekin lotzen dela. Hartara, natura oinarrizko gaia da Koreako poesia tradizionalan, eta erlijio izaerako poesiak ibilbide argia du espainiar literaturaren historian. Halaber, bi gai horiek bereziki garrantzitsuak izan ziren artikuluko honek hizpide duen garai historikoan, oinarrizko elementu zirelako Koreako zein Espainiako poesia tradizionalistaren barruan; bestetik, poesia mota hori poesia existentzialaren kontrapuntua zen bi herrialdeetan.

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu norberaren existentziaren zentzuaz galdetzen duten poemak, krisi existentzialari banako irtenbidea eskaintzen diotenak, ohikoagoak direla Espainiako kasuan; gerraren alderdi absurdoa eta gizakia objektutzat jotzea esentzia galtzearen ondorioz, berriz, Koreako kasuan agertzen da batik bat. Orobat, gehitzeko modukoa da Jainkoari eginiko erreferentziak eta erlijio izaerako poesia Espainiako poesiaren ezaugarri direla, eta Koreakoari dagokionez, nabarmenagoak dira naturari eta natura-zikloari eginiko aipamenak.

Dena den, bi herrialdeetan topa daitezke poesia existentziala sortzera jotzen duten gaien adibideak, gerraren esperientzia traumatikoa abiapuntu. Izaera existentzialaren barnean, hasieran larritasuna da nagusi heriotzaren aurrean, baita norberaren existentziari buruzko gogoeta ere, baina geroago, handiagoa da esperantza berreskuratzeko eta humanismo berria sortzen laguntzeko prestasuna. Horregatik guztiagatik, ondorioa izan daiteke gerra bezalako tragedia baten aurrean garrantzi handiena dutela pertsonak gerturatu eta gizadia guztiok batera eratzen dugula gogorarazten diguten antzekotasunek, elkarren artean hain urrun dauden bi kulturen arteko ezberdintasunak gorabehera.

## Bibliografía\*

- ALONSO, D. (1952): *Poetas españoles contemporáneos*, Madrid: Gredos.
- ALONSO, D. (2001): *Hijos de la ira*, Ed. de Fanny Rubio, Madrid: Espasa Calpe.
- ASÍS, M. D. de (1977): *Antología de poetas españoles contemporáneos. 1936-1970*, Madrid: Narcea.
- CASTELLET, J. M. (1960): *Veinte años de poesía española (1939-1959)*, Madrid: Seix i Barral.
- CHOI Jin Song (1994): *1950 nyeondae-ui jeonhu hanguk hyeondaeshi-ui jeongae yangsang*, Tesis de doctorado, Donga University.
- GARCÍA DE LA CONCHA, V. (1987): *La poesía española de 1935 a 1975*, Madrid: Cátedra, vol. II.
- HAN Hyeong Gu (1991): «1950 nyeondae-ui hangukshi-jeonjaengshi hog-eun jeonhushi-ui jeongae», *Munhagsa-wa bipyeong*, 1, 59-108.
- JANG Jae Geon (1997): *1950 nyeondae jeonhushi-ui naemyeon-uishig yeongu*, Tesis de posgrado, Konkuk University.
- JEON Bong Geon (2008): *Jeon Bong Geon shijeonjib*, recopilado por Nam Jin-U, Munhagdongne.
- KIM Su Yeong (2003): *Kim Su Yeong jeonjib*, Min-eumsa.
- KIM Yeong Ju (1999): *Hanguk jeonhushi-ui jug-eum-uishig yeongu*, Tesis de doctorado, Sookmyung Women's University.
- MUN Hye Won (1996): *Hanguk jeonhushi-ui hyeonshil-uishig yeongu*, Tesis de doctorado, Seoul University.
- OTERO, B. de (2003): *Antología poética. Expresión y reunión, Introducción y notas* por Sabina de la Cruz, Madrid: Alianza Editorial.
- PARK In Hwan (2006): *Park In Hwan jeonjib. Sarang-eun gwageoneun namneun geos*, Munseungmug, Yeog.
- PARK Seong Hyeon (1997): *Hanguk jeonhushi-ui jug-eum-uishig yeongu: Kim Jong Sam, Park In Hwan, Jeon Bong Geon-eul jungshim-eulo*, Tesis de posgrado, Konkuk University.
- PARK Yun-U (2004): «Jeon Bong Geon-ui jeonjaengcheheomshi-wa hwasang hyeongshig-ui mihag», *Hangukshimunhag*, 12, 256-276.
- ROSALES, L. (2010): *La casa encendida, Rimas, El contenido del corazón*, Edición de Noemí Montetes-Mairal y Laburta, Madrid, Cátedra.
- SARTRE, J.-P. (1999): *El existencialismo es un humanismo*, Barcelona: Edhasa
- SONG Gi Han (1996): *Hangukjeonhushi-wa sigan uishig*, Taehagsa.
- YUN Jong Yeong (2004): *1950 nyeondae-ui hanguk shijeongshin-yeongu*, Tesis de doctorado, Daejin University.

---

\* Oharra: Koreako abizen gutxi direnez eta horiek kentzeak eragin ditzakeen nahasteak ekiditeko, artikulua honen bibliografian egile korearren izen-abizen osoak eman dira (ez soilik inizialak, estilo liburuak dioen bezala) salbuespen gisa; nolana ere, ohikoa da hori Korean.